

salatu eta egin planto euskarafobiari!

Euskarafobia herritar euskaldunekiko ezinikusia da.

Espainiak eta Frantziak diskriminazio soziala ezarri digute euskaldunoi gazteleradunen eta frantsesdunen hizkuntz eskubideak euskaldunon hizkuntz eskubideen gainetik jarritz. Euskaldun (euskal hiztun) guztiok pairatzen dugu, sarri konturatu ez arren, ohituraren ohituraz normalizatuta baitauekagu eta soilik euskara erabiltzen saiatzean hartzen baita euskaldunon aurkako erasoen kontzientzia.

ELA klase sindikatua izaki, faxismoaren, matxismoaren, LGTBIfobiaren eta arrazakeriaren aurka dago eta beraz, euskarafobiaren aurka.

Euskaldunok jasaten dugun **zapalkuntza** sakona eta oso aspaldikoa da. Soilik azken 50 urteotan izan dugu lege-babes erlatiboa EAEn eta Nafarroako zati batean. Iparraldean hori ere ez.

Hona hemen, hamaika euskarafobia-adibide.

1> Hizkuntzaren lapurreta: Euskara jakiteko aukera kentzen dizutenean

Gaztelania edo frantsesa euskal gizartearen %100ari inposatu zaizkio, derrigorrez, salbuespenik gabe. Mendetako zapalkuntza planifikatuaren ondorioz, dagoeneko oharkabean ikasten ditugu bi Estatu-hizkuntzak. Euskal Herritarroi, baina, ez zaigu bermatzen, eskaintzen eta ez dira baliabide nahikoak eskaintzen era berean gizarte guztiak euskara beregana dezan. Esaterako, EAEn bertan ere euskara ikastea oraindik ez da doakoa (gaztelera / frantsesa ikastea bai) edota euskara lanordutan ikastea ez da langileon eskubidea, eta ondorioz, beste hamaika traba tarteko, euskal herritar askori euskara ezagutzeko eskubidea lapurtu zaie.

2> Hizkuntz mendekotasuna: Ez dizutenean euskaraz egiten uzten

Euskaldunok erdarara jo ohi dugu erdaldunen edota ezezagunen aurrean, ez “edukazioz”, sumisioz baizik (edukazioa bi norabidetakoa da). Euskarafobia adibide agerikoena da baina, era berean, ezkutuen dagoena, euskaraz egiteko aukerarik ez izatea normalizatuta baitago.

3> Babesgabetasun ikasia: Norbere hizkuntza bazter uzten denean

Babesgabetasun ikasia (kolonizatuaren sindromea) arazo psikologikoa da: zapalkuntza-egoerei aurre egin arren aldaketarik eragitea lortzen ez dugunean etsipena errotzen zaigu, eta neke psikologiko horren ondorioz, ondorioztatzen dugu “onena” ez saiatzea dela. Horregatik, euskaldun gehienek erdaraz egiten diete lehen hitza ezezagunei, tabernariari, poliziari, medikuari...

4> Euskarafobia hutsala: Euskaldunak aintzat hartuak ez direnean

Erasotzea baino eraginkorragoa izan daiteke ezikusiarrena egitea. Erasoa zuzena ez denez ez du erantzunik eragiten, erasoaz jabetzea ere zailagoa da, eta salatzea are gehiago: saltokian arreta eta errotulazioa erdara hutsez, tabernan zurito bat eskatu eta “no te entiendo” entzun beharra, poliziak “buenos días” edo “bonjour” bai baina egun onik ez, jatetxeko karta erdaraz bai baina euskaraz ez...

5> Euskarafobia legez inposatzen denean.

Euskaldunon aurkako lege, agindu eta debekuen zerrenda oso aspaldikoa eta amaigabea da (ikus Torrealdairen “Asedio al euskera”, Urrutia eta Irujoren “Historia Jurídica de la lengua vasca”, Azurmendiren “Españolak eta euskaldunak”...). Honen aldaera bat “Justizia” delakoak eragindako euskarafobia da, epaileek euskaldunon hizkuntza eskubideak murrizteko legea bihurritzen dutelarik. Hego EHko oldarraldi judiziala, Nafarroako Merituen Dekretua, Iparraldean eskubide guztien ukatzea, barbarako.

- 6➤ Euskarafobia politiko, intelektual eta patronala: Botereak euskaldunak gutxiesten dituenekoa**
Espainiako eta Frantziako botereek etengabe gutxietsi eta baztertu gaituzte euskaldunak, gaurdaino. Enpresari asko ere, langile eta bezero euskaldunak gutxiesten nabarmendu dira. Intelektual eta politikari euskarafoboak ere badira, eta ez soilik espainolak edo frantsesak: horra hor Unamuno eta Pío Baroja aspaldikoak, baina baita egungo De Andrés, Mendia, Ibarrola, Chivite, Andueza eta abar ere. Gutxiespen sistematikoaren ondorioz, euskaldun askok euskara baztertu dute.
- 7➤ Euskarafobia mediatikoa: Hedabideek zapaldua zapaltzailea dela sinestarazi nahi dutenean**
Ugariak dira hedabide euskarafoboak, euskararen normalizazioaren aurkako berriak eta iritzia hedatu, euskarari edo euskaldunoi kutsu ezkorra atxiki, edota euskararen derrigortasuna iradoki ohi dutenak, Euskal Herrian inposatutako hizkuntzak gaztelera eta frantsesa izan arren. Vocento taldeko hedabideak euskarafobo sutsu eta tematiak dira, baina hedabide “aurrerakoi” espainiar eta frantsesen ekarpena ere, ukaezina da.
- 8➤ Supremazismoa: Erdaldunek botereak emandako nagusitasuna baliatzen dutenean**
Erdaldun askok, erdaraz jarduteko eskubidea euskaraz aritzeko eskubidearen gainetik dagoela uste du, botereak horretan hezi dituelako (eta gaituelako). Horregatik, euskaldun askok bazterketa eta menpekotasun-egoerak barneratu eta normalizatu dituzte. Besteak beste, lantokiko bilerak, laneko agiriak, jarraibideak... erdara hutsez izatea da supremazismo horren adierazle egunerokoan.
- 9➤ Euskarafobia ekonomikoa: dirusarrerak izateko erdaraz egin behar denean.**
Espainiar eta frantses nazionalismoen, kapitalismoaren eta globalizazioaren eraginez, Frantsesa eta Espainiera gailentzen dira euskararen aurretik mozkin ekonomiko handienak izatea helburu. (Adibidez, influencer euskaldun gehienak gaztelera edo frantsesez mintzo dira, euskaldunak bazter utzita.
- 10➤ Euskarafobia “progrea”: Euskaldun izate hutsagatik supremazismoa egozten zaigunean**
Esparru jakinetatik euskaldunoi leporatzen zaigu gure egoera gutxituaren ardura, arrazakeria, burgeskeria, elitismoa eta gisako “bertuteak”. Guztiz kontrara, elebitasun unibertsalerantz jotzea da berdintasunerako eta gizarte-arrakalen kontrako abiapuntua. Ezin da ontzat eman gaztelania eta frantsesa izatea derrigor jakin beharreko hizkuntza bakarrak. Areago, euskara bere eremu naturalean, Euskal Herrian, berriro hizkuntza nagusia izatea litzateke bidezkoena.
- 11➤ Euskarafobia administratiboa: Institutioek euskaldunoi hizkuntz eskubideak ukatzen dizkigutenean**
Supremazismo espainiarrak eta frantsesak beren nagusikeria justifikatzen dute “espainiar” edo “frantses” guztien arteko “berdintasunaren” izenean, **uniformizazioa** “demokratikoki” ezarriz. Estatuon menpeko administrazioetan erabat, baina **EAEko** Administrazio publikoetan ere, oztopo handiak jartzen zaizkigu oraindik euskaraz jarduteko orduan
Nafarroako Administrazio Publiko gehienetan euskaldunok ez dugu hizkuntz eskubiderik “eremu euskaldunetik” at, eta **Iparraldean** ez dugu legezko eskubiderik administrazio publikoen aurrean.

Euskarafobiari planto! Eraso non, salaketa han!
Salatu jokabide euskarafoboak, kalean bezala, lantokian ere.

ELAren salaketa txokoa

salatu eta
egin planto
euskarafobiari!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA